

# **EAEN BIZITEGI-BAZTERKETA LARRIAN DAUDEN PERTSONEN EGOERARI BURUZKO VII. AZTERLANA 2024**



Ikerketa honetan kolaboratu dute:

 ARRASATEKO UDALA AYUNTAMIENTO DE MONDRÁGON	 Barakaldo CIUDAD-HIRIA	 BASauri	 Bergarako Udala	 Bilbao UDALA AYUNTAMIENTO	 DONOSTIA SAN SEBASTIÁN	 durango zurekin, contigo	
 EIBARKO UDALA	 Erandio UDALA AYUNTAMIENTO	 Ermua	 ERRENTERIA UDALA	 Galdakao ko Udala	 Getxo beziz ezaize	 Hernaniko Udala	
 Hondarribiko Udala	 Ayuntamiento Udala www.irun.org	 LAUDIO UDALA AYUNTAMIENTO DE LLODIO	 LEGAZPIKO UDALA	 Leioa UDALA-AYUNTAMIENTO	 LEKEITIO geure nortasunetik	 MARKINA XEMEIN batarra etxeoneztat	
 OIARTZUNGO UDALA	 Ondarroako UDALA	 PASAIAKO UDALA	 Ayuntamiento de Portugaleteko Udala	 SANTURTZI udala - ayuntamiento Stz	 Sestao Udala Ayuntamiento	 TOLOSA	
 ORDUNA UDALA	 Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz Vitoria-Gasteizko Udala	 EUDEL EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS	 araba Álava foro aldundia diputación foral	 Bizkaia foro aldundia diputación foral	 Gipuzkoako Foro Aldundia Zerbitzu eta Gizarte Politiketako Departamentua	 Diputación Foral de Gipuzkoa Departamento de Ciencias y Políticas Sociales	 EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO ONIZTIAZ, OIZTIRIAZ ETA ERROKIN DEMOKRAZIAREN SAILA DEPARTAMENTO DE BIENESTAR, JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO

Azterlanaren egilea:

Gizarte era Informazio eta Ikerketa Zerbitzua (SIIS). Eguia-Careaga Fundazioa.


# Aurkibidea

<b>1/ Azterlanaren aurkezpena, helburuak eta egitura</b>	<b>5</b>
Aurkezpena	6
Ikerketaren helburuak eta txostenaren egitura	8
<b>2/ Metodologia</b>	<b>9</b>
Azterketaren xede den biztanleria	10
Azterketaren irismen geografikoa	11
Landa-lana kalean	12
Landa-lana ostatudun zentroetan	14
Informazioa biltzeko tresnak	15
Pertsonen parte-hartza bizitegi-bazterketa larrian	16
<b>3/ Bizitegi-bazterketa larriko egoeran dagoen pertsona kopurua, bilakaera eta ezaugarri nagusiak</b>	<b>17</b>
Zenbat pertsona daude bizitegi-bazterketa larriko egoeran?	18
Zenbat pertsona zeuden "kalean" eta zer udalerritan?	20
Ze eratako lekutan zeuden "kalean" zeuden pertsonak?	22
Zer nolako bilakaera izan dute Euskadin kalean dauden pertsonen egoerek?	25
Zer nolako egoera izan dute hiru hiriburuetan kalean dauden pertsonen egoerek?	26
Zenbat pertsona zeuden ostatudun zentroetan?	27
Joera nagusiak etxegabeen konposizioan	31

<b>4/ Etxegabeen egoera eta bizi-baldintzak</b>	<b>35</b>
Sarrera	36
Jatorria, egoera administratiboa eta sustraitzea	37
Atzerritar jatorriko pertsonen ibilbideak eta Euskadin jarraitzeko dituzten aurreikuspenak	41
Etxegabetasunaren arrazoiak, diskriminazio-pertzepzioak eta biktimizazioak	43
Familia-harremanak eta bakardadea	47
Ikasketa-maila, jarduera, diru-sarrerak eta DSBE	49
Zerbitzuen erabilera eta balorazioa, eta etxegabetasun-egoeratik ateratzeko lehentasunak	56
Osasun-egoera eta osasun-arreta	61

<b>I. Eranskina: Kalean egindako zenbaketaren emaitza nagusiak, udalerriz udalerri</b>	<b>65</b>
<b>II. Eranskina: Kaleko zenbaketan parte hartu zuten pertsonen ebaluazio-galdetegien emaitzak</b>	<b>82</b>

# **1/ Azterlanaren aurkezpena, helburuak eta egitura**



## Aurkezpena

Azterlan honek **EAEn bizitegi-bazterketa larriko egoeran dauden pertsonen zenbaketaren VII. edizioaren** emaitzak jasotzen ditu; 2024ko urriaren 23tik 24rako gauean egin zen zenbaketa hori. Jakinekoa den bezala, 2012az geroztik bi urtean behin egindako zazpi edizioz osatutako serie baten barruan sartzen da azterlana; edizio horiei esker, aurrerapen garrantzitsua egin da EAEn bizitegi-bazterketa larriko egoeren ezagutzan.

Azterketa horiek hasieratik egin dira **erakunde arteko lankidetzako eta lankidetza sozialeko eredu** batekin. Aurreko urteetan bezala, Eusko Jaurlaritzak (Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografiko Saila) sustatu eta finantzatu du azterlana, eta hiru Foru Aldundietako Politika Sozialetako departamentuek, udal parte-hartzaileek, Hirugarren Sektore Sozialeko entitateek eta haien borondatez parte hartu duten pertsonek kolaboratu dute.

**Azterketa honen aurrekari hurbilenak 2010. eta 2011. urteetakoak** dira; garai hartan, Bilboko eta Donostiako udalek –Madrilen eta Bartzelonan antzerako esperientziak burtu ondoren– voluntarioek gauetako zenbaketak egin zitzaten bultzatzu zuten, hiri bakoitzean zegoen etxegabe kopurua eta haien ezaugarri nagusiak ezagutzeko helburuz. Urtebete beranduago, 2012an, implikatutako administrazio publiko guztiak ados jarri ziren EAEn hiru hiriburuetan aldi berean gaueko zenbaketa bat egiteko, baita beste zenbaketa zabalago bat ere, Euskadi osoko etxegabeentzako zentroetan eta bizitegi-zerbitzuetan zeuden pertsonena.

Urte hartatik aurrera, bi urtean behin egin dira zenbaketak –azkena 2024an–, EAEn gero eta udalerri gehiagotan (1. Taula).

**Azkeneko edizioan, EAEn 30 udalerrik hartu du parte, Euskadiko biztanleriaren %69,8 ordezkatuz eta, serie osoan zehar, 37 udalerri ezberdinek hartu du parte;** horietatik 28 udalerrik bi ediziota edo gehiagotan.

Hurrengo orrialdeetan xehetasun handiagoz azalduko den bezala, **azterlanaren azkeneko edizio honek zenbait berezitasun** izan ditu, bizitegi-bazterketa larriko egoerei buruzko ezagutza hobetzen jarraitzeko interesaren ondorioz; horrek hainbat aldaketa edo hobekuntza ekarri ditu aurrez egindako azterketekiko. Berrikuntza horien artean, ondorengoa aipatu behar dira.

- Ikuspuntu teknikotik, **aplikazio informatiko** baten bitartez egin da 2024ko zenbaketa; horrela, orain arte erabili izan diren papereko galdetegien ordez, galdetegi digitalak erabili dira, eta horrek erraztu egin du informazio-bilketa eta informazioaren tratamendua arindu.
  - Bizitegi-bazterketa larriko egoeran dauden pertsonen zenbaketarako aurreko urteetako antzerako irizpideak erabili diren arren, **ETHOS tipologiarengan etxegabetasun egoerei dagozkiengen egoeratan zentratu da** aurtengo zenbaketa. Horregatik, aurkitutako pertsonak kalean edo gaueko harrera-zentro edo -zerbitzuetan zeuden kasuetan soilik egin dira elkarritzeta indibidualak.
  - Berritasun metodologiko nagusia izan da egoera horietara hurbiltzeko eredu berri bat txertatu izana; funtsean, **pertsona voluntarioekin zenbaketa tradizionala egiteari ikuspegi kualifikatu bat gehitu zaio, 151 profesionalen parte-hartzearekin**. Profesional horietako gehienak gizarte-hezitzaileak izan dira, eta iristeko zailak diren edo isolatuta dauden zonetara joan dira; lehen ez zen zona horietara joaten, profesionalekin ez bazeen.
  - Azkeneko edizio honek, serieko udalerri kopuru handiena batzeaz gain –30 udalerri, guztira–, lehenengo aldiz lortu du EAEn 20.000 biztanle baino gehiagoko ia udalerri gehienek parte hartzea.
- Ikuspegi horretatik, eta alderdi demografikoari dagokionez, edizio honetan parte hartu duten udalerriek 2024an EAEn bizi zen biztanleria osoaren %70 ordezkatzen dute.**

## 1. Taula. Kalean dauden pertsonen zenbaketan parte hartu duten EAEko udalerri kopuruaren bilakaera (2012-2024)

		I. Urriak 17-18 2012	II. Urriak 29-30 2014	III. Urriak 26-27 2016	IV. Urriak 18-19 2018	V. Maiatzak 4-10 2020	VI. Urriak 26-27 2022	VII. Urriak 23-24 2024
<b>Araba</b>	Amurrio	-	-	-	✓	✓	-	-
	Laudio	-	✓	✓	✓	✓	✓	✓
	Vitoria-Gasteiz	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓
	<b>Azpitotala</b>	1	2	2	3	3	2	2
<b>Bizkaia</b>	Arrigorriaga	-	-	-	-	-	✓	-
	Barakaldo	-	✓	✓	✓	✓	✓	✓
	Basauri	-	-	-	-	-	-	✓
	Bilbao	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓
	Durango	-	-	✓	-	-	✓	✓
	Erandio	-	-	✓	✓	-	✓	✓
	Ermua	-	-	-	-	-	✓	✓
	Galdakao	-	-	-	✓	✓	✓	✓
	Getxo	-	✓	✓	✓	✓	✓	✓
	Güeñes	-	-	✓	✓	-	-	-
	Iurreta	-	-	✓	-	-	-	-
	Leioa	-	-	✓	✓	✓	✓	✓
	Lekeitio	-	-	-	-	-	-	✓
	Markina-Xemein	-	-	-	-	-	-	✓
	Ondarroa	-	-	-	-	-	-	✓
	Portugalete	-	✓	✓	✓	✓	✓	✓
	Santurtzi	-	✓	✓	✓	-	✓	✓
	Sestao	-	✓	✓	✓	✓	✓	✓
	Urduña	-	-	✓	✓	-	-	✓
	Zalla	-	-	✓	✓	-	-	-
	<b>Azpitotala</b>	1	6	13	12	7	12	16
<b>Gipuzkoa</b>	Arrasate	-	-	-	✓	✓	✓	✓
	Bergara	-	-	-	✓	-	✓	✓
	Beasain	-	-	-	-	✓	-	-
	Donostia	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓
	Eibar	-	-	✓	✓	✓	✓	✓
	Errenteria	-	-	✓	✓	✓	✓	✓
	Hernani	-	-	✓	✓	-	-	✓
	Hondarribia	-	-	-	-	-	-	✓
	Irun	-	✓	✓	✓	✓	✓	✓
	Legazpi	-	-	✓	✓	-	✓	✓
	Oiartzun	-	-	-	✓	✓	-	✓
	Pasaia	-	-	✓	✓	✓	✓	✓
	Tolosa	-	-	✓	✓	✓	✓	✓
	Zarautz	-	-	✓	-	-	-	-
	<b>Azpitotala</b>	1	2	9	11	9	9	12
<b>Guztira</b>		3	10	24	26	19	23	30

## Ikerketaren helburuak eta txostenaren egitura

Honako hauek dira ikerketa honen **helburu nagusiak**:

- **2024ko urriaren 23tik 24rako gauean Euskadin bizitegi-bazterkeriako egoera larrian zenbat pertsona zeuden jakitea**, egoera horiek zein diren ezartzen duen definizio zehatz batetik abiatuta eta, azkeneko edizioan parte hartu zuten 30 udalerrietako edozeinetan, kalean zeuden pertsonak zein ostattua eskaintzen duten EAE osoko zentro eta zerbitzuetan zeudenak kontuan hartuta.
- Garrantzitsua da zehaztea gau bakarrari dagokion argazkia dela, eta ondoko egunena, zenbaketa kualifikatuaren kasuan. Elementu hori funtsezkoa da emaitzak baloratzerakoan. Halaber, datuen serie historikoak datuon bilakaera analizatzeko aukera ematen duen arren, analisi hori bizitegi-bazterketa larriko egoera jakin batzuetara eta datuak bildu ziren gauera edo inguruko egunetara mugatzen diren datuetan oinarritzen da.
- **Aurkitutako pertsona guztien ezaugarri soziodemografiko nagusiak ezagutzea** –adina, sexua eta jatorria– eta, elkarrizketa individualen bitartez, haien bizi-baldintzak zein diren jakiten saiatzea.
- Azkeneko edizio honetan, batez ere ETHOS tipologiarengarabera etxegabeak diren pertsonengana bideratu da arreta, eta haiei solik egin zaie elkarrizketa pertsonala, gaueko zenbaketan kalean aurkitutako pertsonak zein gaueko harrera-zentroetan eta -zerbitzuetan aurkitutakoak barne.
- **2012az geroztik behatutako joera eta aldaketa nagusiak ikuspegi ebolutibo batetik aztertzea**, bizitegi-bazterketa larriko egoerek eragindako pertsona kopuruari, kokalekuari eta ezaugarriei dagokienez.

Deskribatutako helburu bakoitzari erantzuteko, lau kapitulutan eta bi eranskin dituen amaierako zati batean egituratzen da txostena.


Sarrerako hasierako kapitulu honen ondoren, ikerketa hau egiteko jarraitu den metodologia xehatzen da hurrengo kapituluan. Horrela, azterlanaren xedearen mugaketa zehazten da –ETHOS tipologiatik abiatuta–, azterlanaren irismen geografikoa xehatzen da, eta kalean zein ostattua eskaintzen duten zentroetan egindako landa-lana deskribatzen da. Edizio honetan informazioa biltzeko erabili diren tresnak ere aurkezten dira; aurrez adierazi dugun bezala, tresna horiek aldaketa kualitatibo bat ekarri diote azterlanari aurreko edizioekin alderatuz, lehenengo aldiz erabili baita aplikazio digital bat.

Hirugarren kapitulua gaueko zenbaketaren emaitza kuantitatiboei buruzkoa da. Xehetasunez eta ikuspegi ezberdinatik deskribatzen dira –ikuspegi ebolutiboa barne– 2024ko edizioko gaueko zenbaketaren emaitzak.

Laugarren kapitulua erantzuteko prest egon ziren pertsonen elkarrizketa indibidualean emandako erantzunen analisiaren ingurukoa da. Aurrez esan bezala, azterlanaren azkeneko edizioa etxegabeen egoeran zentratu da; horrela, etxegabeei bakarrik egin zitzaiak elkarrizketak, hau da, kalean aurkitutako pertsonei eta gaueko harrera-zerbitzu edo -zentroetan zeudenei. Pertsona horien egoera eta bizi-baldintzak ezagutzeko helburuz, ondorengo alderdiak lantzen ditu kapitulu honek: etxegabeen jatorria, haien ibilbideak eta Euskadin jarraitzeko dituzten esperitutibak; etxegabetasunaren arrazoak eta kaleko diskriminazio- eta biktimizazio-esperientziak; etxegabeek dituzten baliabide sozialak eta familiarrak; haien parte-hartzea lanmerkatuan, eta prestazioak edo laguntzak jasotzen dituzten aukerak; zerbitzu ezberdinaren erabilera eta balorazioa, eta etxegabetasun-egoeratik ateratzeko lehentasunak; eta etxegabeen osasun-egoera eta osasun-zerbitzuak erabiltzeko aukera.

Bi eranskinek osatzen dute txostena. Lehenengo txostenak, kaleko zenbaketaren emaitza nagusiak aurkezten ditu, udalerriz udalerrri. Bigarrenak, berriz, kaleko zenbaketan parte hartu zuten pertsonen emandako ebaluazio-galdetegien emaitzak erakusten dituzte, haien esperientzia ezagutzeko helburuz.

## **2/ Metodología**



# Aztergai den biztanleria

Azterketa-serie osoak **bizitegi-bazterketako egoeran dauden pertsonei dagokien esparru kontzeptuala** hartzen du erreferentziatzat, FEANTSA Federazioak Etxegabeei buruzko Europako Behatokiaren esparruan garatutakoa eta ETHOS Tipologian islatzen dena.

**ETHOS tipología** (*European Typology of Homelessness and Housing Exclusion*) 2000ko lehenengo hamarraldian formulatu zen, eta lau kategoria kontzeptualetatik abiatuta hurbiltzen da bizitegi-bazterketako egoeren deskribapenera; lau kategoria horiek, aldi berean, 13 kategoria operatibotan eta 24 egoera-azpikategoriatan banatzen dira. ETHOS tipologiak jasotzen dituen bizitegi-bazterketako egoerak etxearen kontzeptuari dimensio anitzeko esparru bat aplikatzearen emaitza dira; horren arabera, hiru domeinu edo baldintzaren baturaren emaitza izango litzateke: domeinu fisikoa, soziala eta legala.

Edizio honetan **kontuan izan diren kategoria operatiboak** 2. Taulan ageri direnak dira, eta aurreko edizioetako **ohiko kategoriak** osatzen dituzte, funtsean, **etxegabetasun-egoerekin** bat datozenak.

Horrenbestez, edizio honek, funtsean, **bi berritasun ditu azkeneko edizioekiko**.

- **5.1 kategoria operatiboa** gehitu da, 2018ko edizioan ere jaso zena, asilo-eskatzaileentzako zentroetan ostatua jasotzen duten pertsonen egoerei buruzkoa; aurretiazko fase horrekin hasten dute nazioarteko babeseko harrera-sistemarekiko kontaktua. Nazioarteko babesea eskatzen duten pertsonei zuzendutako zentroak dira, Estatuko asilo- eta babes-sarearen barruan daudenak. Pertsona horiek egoeraren ebaluazioaren aurretiazko fasean daude. Kontuan izan behar da nazioartearren babesea eskatu eta aurkako ebazpena jasotzen dutenek etxegabetasun-arrisku handia dutela.
- Aurreko edizioetan ere jasotzen ziren arren –kaleko zenbaketa tradizionaletan behatutako egoeren bitartez–, oraingo honetan, osotasunean txertatu dira **11. eta 12. kategoria operatibo** gisa multzokatutako kategoria kontzeptualak. Hori egin ahal izan da edizio honetan kaleko zenbaketak osatzeko txertatu den **ikuspegি kualifikatuari** esker.

2. Taula. Azterlan honetan ETHOS tipologiatik abiatuta jasotzen diren bizitegi-egoerak (2024)

	Kategoria operatiboa	Bizitegi-egoera	2024	
ETXEGABETASUNA	1 Eremu publikoak bizi direnak (atari zabalean)	1.1 Kanpoko eremu publikoa	✓	
	2 Gaeuko babeslekuak lo egiten dutenak edota egunean zenbait ordu eremu publikoan eman behar dituztenak	2.1 Gaeuko aterpetxea edo babeslekua	✓	
	3 Etxerik gabekoentzako aterpetxe eta zentroetan / aldi baterako biziokietan bizi direnak	3.1 Aterpetxean eta biziokietan	✓	
		3.2 Aldi baterako eta iragaitzako biziokietan	✓	
	4 Emakumeentzako aterpetxeetan daudenak	4.1 Babespeko biziokietan	✓	
		4.2 Emakumeentzako aterpetxeetan (bakarrak edo seme-alabekin)	✓	
	5 Asilo-eskatzaile eta etorkinentzako biziokietan daudenak	5.1 Alde baterako biziokietan / Harrera-zentroak	✓	
ETXEBIZITZAK		5.2 Sasoiko langileentzako biziokietan	X	
		5.3 Zigor-instituzioak (espetaeak)	X	
		5.4 Osasun-instituzioak (ospitaleak...)	X	
		5.5 Adingabekoentzako zentroak	X	
6 Epe jakin batean biziokigiko edo barnetegiko instituzioetatik irtengo direnak	6.1 Adineko etxerik gabekoentzako egoitza	✓		
	6.2 Aurretiaz etxerik ez zutenentzako epe luzerako babespeko eta tutoretzapeko etxebizitza	✓		
7 Etxerik gabekoak direnez babes eutsiko biziokietan jasotzen dutenak	7.1 Senideen harrerapean bizi izatea	X		
EGOITZA-BAZTERKETA	8 Edukitza ez-seguruko araubidean bizi direnak. Alokairurik ordaindu gabe	8.2 Legezko edukitarik gabe (adb. azpialokatuak)	X	
		8.3 Legez kanpoko okupazioa	X	
		9.1 Alokairu-arau biziokietan	X	
	9 Etxe-kanporaketarako mehatxupean bizi direnak	9.2 Jabetzako etxebizitza	X	
		10.1 Bikotekideen edo familiaren indarkeriarako mehatxupean bizi direnak	X	
ETXEBIZITZA DESSEGOKIA	10 Indarkeriarako mehatxupean bizi direnak	11.1 Polizian aurkeztutako salaketak	X	
		11.2 Karabananak eta antzekoak	✓	
		11.3 Ezohiko eraikinak eta biziokietan moduan diseinatu ez diren eraikinak	✓	
	11 Aldi baterako eta ezohiko egituretan bizi direnak	12.1 Aldi baterako egiturak	✓	
		12.2 Bertan bizi izateko egokia ez den eraikina	✓	
	13 Larregizko pilaketa	13.1 Pilaketa zehazten duten ohiko estandarren gain-gainetik	X	

# Azterlanaren irismen geografikoa

Azterketa honek hartzen duen eremu geografikoa aldatu egiten da aintzat hartu diren bizitegi-egoera ezberdinaren arabera:

- Gaua kalean** igarotzearekin lotutako etxegabetasun-egoeren kasuan –ETHOS sailkapeneko 1.1 kodea eta 11 eta 12 kategoriak (2. Taula)–, ikerketa honetan parte hartu duten **30 udalerriak hartzentzen ditu eremu geografikoak**.
- Gaua ostatuetan** igarotzeari dagozkion kategoriek, aldiz –ETHOS sailkapeneko 2.1 eta 3.1 kodeak– **autonomia erkidegoaren** mailako **irismena** dute.
- 'Etxerik gabeko'** egoeren barruan sartzen diren gainerako kategorien eremu geografikoa **autonomia erkidegoarena** da foru eskumeneko zentroen kasuan, eta **parte hartu duten 30 udalerriena** udal eskumeneko zentroen kasuan. 'Etxerik gabeko' egoera horiek ostattua eskaintzen duten Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zentroetakoren batean gaua igarotzen dutenei dagozkie; zentro horiek gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonei edo indarkeria matxitaren biktima diren emakumeei zuzendutakoak izan daitezke.

Gaua kalean igarotzen dutenen egoerari dagokionez, ikerketa honek **30 udalerri** dagozkien egoerak biltzen ditu: udalerri horietako **2 Araban daude, 16 Bizkaian eta 12 Gipuzkoan**. Biztanle kopuruaren ikuspegitik, 30 udalerri horiek **Euskadira bizi den biztanleriaren %69,8 ordezkatzen zuten 2024an**.

Ostattua eskaintzen duten zentroetan egindako zenbaketaren kasuan, **48 udalerritan** dauden **404 zentrok** hartzentzen parte edizio honetan; zentro horietako 59 Araban daude, 168 Bizkaian eta 177 Gipuzkoan. Halaber, horietako %58,7 hiru hiriburueta batean daude.

Guztira, **3.354 plaza** eskaintzen zituzten zentro horiek (%15,2 Araban, %48,2 Bizkaian eta %36,7 Gipuzkoan). Oro har, plazen hiru laurden hiru hiriburueta batean zeuden (%65,5); kontzentrazio hori askoz handiagoa zen Araban (%96,9) Bizkaian (%70,6) eta Gipuzkoan (%45,9) baino.

3. Taula. Kaleko zenbaketan parte hartu duten udalerrien biztanleria eta azalera (2024)

	Udalerrak	Kopurua	Bitzanleria	Bizitegi-azalera km <sup>2</sup>
<b>Araba</b>	Partaideak	2	270.067 [%80,6]	21,1 [%38,7]
	Ez partaideak	49	65.079 [%19,4]	33,4 [%61,3]
	Guztira	51	335.146	54,6
<b>Bizkaia</b>	Partaideak	16	830.041 [%72,2]	37,0 [%46,3]
	Ez partaideak	97	319.996 [%27,8]	43,0 [%53,7]
	Guztira	113	1.150.037	80,0
<b>Gipuzkoa</b>	Partaideak	12	440.285 [%60,9]	30.7678 [%60,2]
	Ez partaideak	76	282.539 [%39,1]	20,3 [%39,8]
	Guztira	88	722.824,0	51,1
<b>Euskadi</b>	Partaideak	30	1.540.393 [%69,8]	88,9 [%47,9]
	Ez partaideak	222	667.614 [%30,2]	96,7 [%52,1]
	Guztira	252	2.208.007	185,6

Oharra: koxketeen arteko ehunekoek magnitude bakotzak lurralde historiko bakotzean eta, hala badagokio, Euskadi osoan duen pisu erlatiboa adierazten dute. Biztanleriaren datuak Eustaten Biztanleriaren eta Etxebizitzen Erroldatik dator, eta 2024ko urtarrilaren 1eko datuak dira. Azalerari buruzko datuak Eusko Jaurlaritzako Ingorumenen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailekoak dira.

4. Taula. Ostattua eskaintzen duten eta azterlanean parte hartu duten zentroen banaketa geografikoa (2024)

L.H.	Udalerrak	Kopurua	Zentroak		Plazak	
			Kopurua	%	Kopurua	%
<b>Araba</b>	Hiriburua	1	56	%94,9	493	%96,9
	Gainontzeko udalerriak	1	3	%5,1	16	%3,1
	Guztira	2	59	%100,0	509	%100,0
<b>Bizkaia</b>	Hiriburua	1	115	%68,5	1.140	%70,6
	Gainontzeko udalerriak	18	53	%31,5	475	%29,4
	Guztira	19	168	%100,0	1.615	%100,0
<b>Gipuzkoa</b>	Hiriburua	1	66	%37,3	564	%45,9
	Gainontzeko udalerriak	26	111	%62,7	666	%54,1
	Guztira	27	177	%100,0	1.230	%100,0
<b>Euskadi</b>	Hiriburua	3	237	%58,7	2197	%65,5
	Gainontzeko udalerriak	45	167	%41,3	1157	%34,5
	Guztira	48	404	100,0%	3.354	100,0%

## Landa-lana kalean

Azkeneko urteetan behatu dugun joera da, hainbat arrazoi tarteko, gero eta ohikoagoak direla gaua igarotzerakoan udalerriean bistan dauden lekuetan dauden zentroak edo zonak saihesten dituzten etxegabeak; horrela, voluntarioek egin ohi dituzten zenbaketak eraginkortasuna galtzen joan dira.

Horregatik, eredu 'hobetu' bat sartu da kaleko gaueko zenbaketen antolamenduan; funtsean, **hurbilketa bikoitza** egin da, **aurreko edizioekiko ikuspegi kualifikatua indartuz:**

- **Ikuspegi tradizionala.** Ohiko hurbilketa da, eta taldean egituratutako **voluntarioen** laguntena izan da; voluntario horiei hiriko zona jakin batzuk esleitu zitzazkien, **urriaren 23tik 24rako gauean**, 22:00ak eta 02:00ak bitartean, hiri-azaleraren arakatze sakon bat egiteko. Hiri-azalera osatzen dute hiriko zona seguru eta irisgarriei; zona horietan oinez ibil daiteke eta kale asfaltatuak, argiteria publikoa eta askotariko eraikinak daude (familia-etxebizitzak, lokal komertzialak, ekipamendu publikoak...).
- **Ikuspegi kualifikatua.** Zenbaketa egin baino lehen, eta askotariko informazio-iturriak erabilita, ETHOS tipologiak 11 eta 12 kategoria operatiboetan sartzen dituenenkin parekarriak diren bizitegi-bazterketa larriko egoerak daudela dakigun lekuak edo guneak identifikatu ziren. Informazio horrek markatu du **profesionalak** zona horietara joateko ibilbide-orria –zona horiek iristeko zailak dira edo aldenduta daude, eta ez ziren bisitatzen–, zuzeneko behaketarekin kontrastatzeko, zenbaketaren gauen bertan, edo aurreko edo ondorengo egunetan, hau da, **urriaren 21a eta 25a bitartean**. Bildutako informazioa, hori bai, urriaren 23ko gauean igorotako gauari buruzkoa izan behar zuen.

Jarduera honetan parte hartu duten udalerrien tamaina eta bitartekoak askotarikoak izan direnez, beharrezkoa izan da eredua malgutzea, hura kaleko zenbaketa antolatu duten udalen errealitatera egokitzeko helburuz. Horrela, sei udalerritan soilik egin da zenbaketa tradizionala voluntarioekin (bistatik galdu gabe ikuspegi kualifikatuko etxebizitza desegokien egoerak), hiru udalerritan profesionalekin bakarrik egin da, eta 21 udalerritan egin da ikuspegi bikoitzaren ereduaren arabera.

Azkeneko edizio honetan, 782 lagunen parte-hartzeari esker egin ahal izan da kaleko zenbaketa; horietatik 631 voluntarioak izan dira, eta 151 (%19,3), berri, askotariko profesionalak (ikus 5. Taula hurrengo orrialdean).

Azterketen serie osoan gertatu ohi den bezala, parte-hartzaleen gehiengoa emakumeak izan dira (%68,9), bai voluntarioen artean (%69,4), bai profesionalen artean (%66,9).

### ► Kuantifikatu zitezkeen egoerak

- **Kalean**, plaza, parke edo kutxazain automatiko batean, besteak beste.
- **Azpiegituretan** (tunelak, zubiak, autobiak...), horien ingurueta edo barruan pertsonak gaua igarotzen badute, azpiegitura horiek aterpe edo babesgune gisa aprobetxatzu.
- Erabilera publikoko eraikin edo ekipamenduen ingurueta (elizak, estadioak, garraio-geltokiak...).
- Aparkatzeko guneak edo parkingak, non pertsonak bizi ohi diren, etxerik ez dutelako. Ez dira sartzen turismoarekin lotu daitezkeen egoerak.
- **Ibilgailu** baten barruan, baina modu isolatuan.
- **Garai batean bizitegi-erabilera ez beste bat zuten eraikin abandonatuak eta hondatua**, oinarritzko hornikuntzarik ez dutenak (ura eta argindarra), non pertsona-taldeek gaua igarotzen duten. Hor sartzen dira: pabilioi zaharrak, industria-pabilioiak edo lantegiak; garai batean erabilera publikokoak izan ziren eraikinak (eskolak, osasun-zentroak) edo beste edozein erabilera pribatukoak, bizitegi-erabileraok izan ezik.
- **Hondatua (edo erdi eraikita) dauden bizitegi-erabilerako etxebizitza-eraikinak edo etxe familiabakarrak**, bizigarritasun-baldintza oso prekarioak dituztenak eta pertsona-taldeek gaua igarotzeko okupatzen dituztenak.
- **Baso-, eta natura- edo landa-inguruneetan dauden lekuak** (urbanizaezinak), hirigunetik aldenduak, non pertsona-taldeek gaua igarotzen duten aldi baterako egituretan (kanpin-dendak, etxolak...) edo egurats zabalean, aterperik gabe (lo-zakuetan, mantekin babestuta...).
- **Lonjak edo erabilera komertzialeko lokal zaharrak**. Oinarritzko hornikuntzarik ez duten establezimenduak, hala nola ura edo argindarra, edo, hornikuntza horiek izan arren, segurtasun-eta higiene-egoera oso txarrean daudenak. Hauen pareko bestelako egoerak ere sar daitezke – trastelekuetan edo ganbaretan–, baldin eta aurrez horren berri badago.
- **Haien kargu adin txikikoak dituzten familiaek dauden kokaguneak**. Espazio jakin batzuetan sortzen diren populazio-modu ezegonkor, arriskutsu eta informalak (etxolak, abandonatutako eraikinak, etab.), batez ere adin txikikoak dituzten familia-taldez osatutakoak.

### ► Zenbatu ez ziren egoerak

- **Kanpinetan modu iraunkorrean** bizi diren pertsonak.
- **Legez kanpo okupatutako** etxebizitzetan dauden pertsonak. Kasu honetan, gutxieneko bizigarritasun-baldintzak betetzen dituzten etxebizitzak edo eraikinak dira.
- **Senitartekoek edo lagunek** haien etxeetan hartuta dituzten pertsonak ('etxegabetasun ikusezina').
- **Sasoikako langileak**, mahats- edo patata-bilketako sasoian aldi baterako egitura oso prekarioetan bizi direnak.

## 782 lagunek hartu zuen parte kaleko zenbaketak egiten, horietako 631 boluntarioak eta 151 profesionalak

5. Taula. Kaleko zenbaketan parte hartu duen pertsona kopurua (2024)

		Ikuspegি tradizionala boluntariotzarekin			Ikuspegি kualifikatua profesionalarekin			Bi ikuspegi batura		
		Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira
<b>Araba</b>	Laudio	3	9	12	1	3	4	4	12	16
	Vitoria-Gasteiz	--	--	--	7	8	15	7	8	15
	Azpitolala	3	9	12	8	11	19	11	20	31
<b>Bizkaia</b>	Barakaldo	22	24	46	0	2	2	22	26	48
	Basauri	--	--	--	2	0	2	2	0	2
	Bilbao	52	89	141	6	4	10	58	93	151
	Durango	3	13	16	--	--	--	3	13	16
	Erandio	10	16	26	2	2	4	12	18	30
	Ermua	--	--	--	2	1	3	2	1	3
	Galdakao	2	5	7	2	6	8	4	11	15
	Getxo	22	50	72	3	7	10	25	57	82
	Leioa	12	29	41	3	4	7	15	33	48
	Lekeitio	1	4	5	--	--	--	1	4	5
	Markina-Xemein	0	4	4	--	--	--	0	4	4
	Ondarroa	0	5	5	--	--	--	0	5	5
	Portugalete	7	17	24	1	5	6	8	22	30
	Santurtzi	2	0	2	1	7	8	3	7	10
	Sestao	3	1	4	0	4	4	3	5	8
	Urduna	2	0	2	0	2	2	2	2	4
	Azpitolala	138	257	395	22	44	66	160	301	461
<b>Gipuzkoa</b>	Arrasate	4	9	13	0	2	2	4	11	15
	Bergara	9	25	34	3	3	6	12	28	40
	Donostia	9	42	51	4	4	8	13	46	59
	Eibar	5	14	19	4	12	16	9	26	35
	Errenteria	0	2	2	3	3	6	3	5	8
	Hernani	2	1	3	1	6	7	3	7	10
	Hondarribia	6	10	16	--	--	--	6	10	16
	Irun	6	20	26	1	1	2	7	21	28
	Legazpi	3	8	11	0	2	2	3	10	13
	Oiartzun	0	2	2	2	7	9	2	9	11
	Pasaia	2	6	8	2	6	8	4	12	16
	Tolosa	6	33	39	--	--	--	6	33	39
	Azpitolala	52	172	224	20	46	66	72	218	290
<b>Guztira</b>		193	438	<b>631</b>	50	101	<b>151</b>	243	539	<b>782</b>
<b>Banaketa (%)</b>		%30,6	%69,4	%100,0	%33,1	%66,9	%100,0	%31,1	%68,9	%100,0

# Landa-lana ostatua eskaintzen duten zentroetan

2024ko edizioan, ondorengo zentro motek hartu dute parte zenbaketan:

- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako zentroei eta zerbitzuei dagokienez, **udal eta foru eskumeneko 388 zentro** sartu dira, ondoren adierazten diren motatakoak:
  - Gaueko harrera-zerbitzuak (1.8).
  - Gizarte-larrialdietako egoeren arretarako harrera-etxeak (1.9.1.1.).
  - Etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeentzako harrera-etxeak (1.9.1.2.).
  - Bazterketa-arriskuan dauden pertsonentzako babespeko etxebizitzak (1.9.2.).
  - Gizarte-bazterketako beharrei erantzuteko gaueko harrera-zentroak (2.3.2.).
  - Bazterkeria- eta marginazio-egoeran dauden pertsonentzako bizitegi-zentroak (2.4.5.).
  - Etxeko tratu txarren biktima diren emakumeentzako bizitegi-zentroak eta emakumeentzako beste bizitegi-zerbitzu batzuk (2.4.6.).
- **CEAR erakundeak asilo- eta babes-egoerak ebaluatzeeko fasearen barruan kudeatzen dituen Estatuko asilo- eta babes-sareko** ostatudun baliabideei dagozkien 480 plaza dituzten 14 zentro sartu dira, eskaeren portzentaje handi bat ezesten baita ebaZen bidez eta, ondorioz, bizitegi-bazterketa larriko egoeran gelditzen baitira eskatzaileak.
- **Halaber, aterpetzeekin eta gaueko harrera-zentrokin pareka daitezkeen kudeaketa eta finantzazio pribatuko baliabideak sartu dira.**

Edizio honetan, aurrekoetan bezala, zenbaketaren gauean ostatua eskaintzen duten zentro guztietai erregistratutako okupazioari eta ezaugarriei buruzko informazio espezifikoak bildu den arren, **elkarrikzeta individuala ETHOS tipologiako 2.1 eta 3.1 kategoriei dagozkien ostatudun zentroetan soilik aplikatu da**, hau da, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuei buruzko Dekretuaren 1.8 eta 2.3.2 zerbitzuekin pareka daitezkeen zentro publiko eta pribatuetan.

## ► Zenbaketan sartu diren bizitegi-zentro edo -egoera motak

- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako ostatudun baliabideak, **lehen mailako zein bigarren mailako** arretakoak:
  - Gaueko harrera-zerbitzuak (1.8).
  - Gizarte-larrialdietako egoeren arretarako harrera-etxeak (1.9.1.1.).
  - Etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeentzako harrera-etxeak (1.9.1.2.).
  - Bazterketa-arriskuan dauden pertsonentzako babespeko etxebizitzak (1.9.2.).
  - Gizarte-bazterketako beharrei erantzuteko gaueko harrera-zentroak (2.3.2.).
  - Bazterkeria- eta marginazio-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroak (2.4.5.).
  - Etxeko tratu txarren biktima diren emakumeentzako egoitza-zentroak eta emakumeentzako beste bizitegi-zerbitzu batzuk (2.4.6.).
  - Bizitegi-egoerak **pentsiotan edo ostatuetan**, udalek edo aldundiek, aurrez aipatutako zerbitzuen edo zentroen artean, ostatu-soluzio horiek dituzten kasuetan.
- **Ostatua eskaintzen duten baliabideak, titularitate eta kudeaketa pribatukoak** (laguntha edo dirulaguntza publikoak jaso zein ez jaso), **gaueko harrerako ostatuekin edo zentroekin pareka daitezkeenak**.
- **Estatuko asilo- eta babes-sarearen egonik, nazioarteko babesea eskatu duten eta ebaluazio- eta deribazio-fasean dauden pertsonai zuzendutako zentroak, ostatua eskaintzen dutenak.** Fase horrekin, nazioarteko babes-harrerako Sistemareniko kontaktua hasten da. Fase horretan, premien lehenengo ebaluazioa egiten da eta, hala badagokio, lehenbailehen bideratzen da bere profilari ondoen egokitzen zaizkion baliabideetara. Nazioarteko babesea eskatu duten pertsonak aurkako ebaZen penia jasotzen badute, etxegabetasun-arrisku handiko egoeran gelditu ohi dira.

## ► Zenbaketan sartu diren bizitegi-zentro edo -egoera motak

- “Alokairuko etxebizitza arrunt bat eskuratzeko erraztasunak emateko bitartekotza egiten duten entitateen” modalitatean sartzen diren baliabideak.
- Etxebizitza arruntak, **Housing First** esku-hartze ereduan oinarritutako proiektuekin.

# Informazioa biltzeko tresnak

Lehen aldiz, aplikazio digital baten bitartez egin da informazioa biltzeko prozesu osoa; aplikazio horretan integratu dira orain arte aplikatu izan diren informazio-bilketakoa tresnak.

Aplikazio digitala edozein gailu mugikorren bitartez eskura daiteke <https://gauekozenbaketa.behatuz.eus/eu> webgunean, berariazko pasahitz-sistema bat erabilira –horietako bat kaleko zenbaketarako eta beste bat ostatua eskaintzen duten zentroetako zenbaketarako–, eta informazioa biltzeko ondorengo tresnak zituen.

## ► Kaleko eta bizitzeko desegokiak diren beste leku batzuetako zenbaketan

- Pertsonei zuzendutako galdetegia (A1).** Bi elementuz osatuta zegoen galdetegia: behaketa-fitxa bat, egoera horretan aurkitutako pertsona guztien oinarrizko datuak biltzeko, eta elkarriketa individual bat, 40 galdera baino gehiagoz osatutakoa eta jardueran elkarriketa egiteko prest agertzen diren pertsonei zuzenduta.
- Galdetegirako esteka: <http://www.siis.net/psh/A1.zip>
- Ebaluazio-galdetegia (A3).** Sei galderaz osatuta zegoen, eta zenbaketan parte hartu zuten pertsonek, boluntarioek edo profesionalek, jardueraren garapena ebaluatu ahal izan zezaten diseinatuta.
- Galdetegirako esteka: <http://www.siis.net/psh/A3.zip>

## ► Ostatua eskaintzen duten zentroetako zenbaketan

- Zentroetarako galdetegia (B2).** Azterlanean sartzen ziren zentroetako arduradunei zuzenduta zegoen, eta 8 galdera zituen. Horietako hiru galderaren helburua zen urriaren 23tik 24rako gauean zentroak zuen okupazio-maila ezagutzea (balibidearen egoera: beteta edo hutsik; zenbat lagunek igaro zuten gaua zentroak; eta pertsona horietako bakoitzaren sexua, adina eta jatorrizko herrialdea). Beste bost galderak zentroaren beraren ezaugarriei buruzkoak ziren (gehieneko egonaldia; adin txikikoak haien ardurapean dituzten familiak hartzen dituzten edo ez; guztizko plaza kopurua; plazak finantzazioaren arabera; eta sexuaren araberako plazak, baldin eta zentroak kontzeptu horren araberako nolabaiteko plaza-erreserbarik izango balu).
- Galdetegirako esteka: <http://www.siis.net/psh/B2.zip>

- Elkarriketa individuala (B1).** A1 galdetegiaren ezaugarri berberak dituen tresna da, baina ez du behaketa-fitxarik jasotzen. Elkarriketaren modulu ezberdinaren bitartez, asmoa zen honako alderdiei buruzko informazioa biltzea: jaioterria; egoera administratibo eta sustraitzea; etxegabetasunaren ibilbidea; familiareniko loturak eta lotura sozialak; zerbitzuen erabilera eta balorazioa; eta osasun-egoera.

Galdetegirako esteka: <http://www.siis.net/psh/B1.zip>

- Ebaluazio-galdetegia (A3).** Lau galdera zituen, eta ostatua eskaintzen duten zentroetako arduradunek jardueraren garapena ebaluatu ahal izan zezaten diseinatuta zegoen.


Galdetegirako esteka: <http://www.siis.net/psh/B3.zip>

Jarraian kontsulta daitezke zenbaketa bakoitzerako gida gisa erabiltzeko prestatutako materialak:

Sarbidea: <http://www.siis.net/psh/Manual.calle.zip>

Sarbidea: <http://www.siis.net/psh/Manual.centros.zip>

► <https://gauekozenbaketa.behatuz.eus>



# Bizitegi-bazterketa larriko egoeran dauden pertsonen parte-hartzea

Urtez urte, ikerketa honen elementurik baliotsuenetako da kaleko eta ostatua eskaintzen duten zentroetako zenbaketak egiten dituzten pertsonek proposatzen dieten elkarritzeta indibidualari erantzuteko prest azaltzen diren bizitegi-bazterketa egoera larriko egoeran dauden pertsonen parte-hartzea.

Aurrez azaldu dugun bezala, oraingo honetan, ETHOS 2.1 eta 3.1 kategoriekin pareka daitezkeen gaeuko harrera-zentro eta -zerbitzuetan (urrerantzean, ostatuak) eta kalean egindako zenbaketan identifikatutako bizitegi-egoeretara mugatu dira elkarritzeta indibidualak. Premisa horretatik, beraz, esan daiteke egoera horietakoren batean zenbatutako pertsona guztien %40,9 hartu duela parte ikerketan (ikus 6. taula). Horrek esan nahi du landa-lanean **urriaren 23tik 24rako gaeuan kalean edo ostatuetan identifikatutako adin nagusiko 2.111 pertsonetatik 864 lagunek hartu zuela parte elkarritzeta indibidualean**.

Erantzun-tasa handi batek informazioaren ordezkarritasun handiagoa dakarrela kontuan hartuta, ondorengoak dira 2024an eskuratutako informaziotik atera daitezkeen ondorio nagusietako batzuk:

- Kalean elkarritzeta indibidualari erantzun zioten pertsonen pisua (%30,1) ostatuetan erantzun zioten pertsonena (%71,2) baino askoz txikiagoa izan zen.** Askotarikoak dira erantzun-tasa horren arrazoia. Kasuen %51n, elkarritzeta indibiduala ez proposatzearen arrazoia izan ziren pertsona lo zegoela, erantzuteko baldintza onetan ez zegoela edo hizkuntza-arazoak zeudela. Bestalde, nahiko txikia izan zen elkarritzetari uko egin ziotenen tasa, elkarritzeta egitea proposatu zitzaien pertsonen %82k onartu baitzuen.
- Oro har –kaleko eta ostatuetako egoerak batera kontuan hartuta– %40,9koa izan zen erantzun-tasa.** Kasu bietan, baina, Gipuzkoan eman ziren erantzun-tasa txikienak; lurralde horretan aurkitutako adin nagusiko 695 lagunetatik soilik 166ren (%23,9) informazio xehatua bildu ahal izan baitzen..
- Ikuspegi ebolutibo batetik, esan liteke 2024ko kaleko erantzun-tasa aurreko edizioetan lortutakoa baino txikiagoa** izan dela; hein handi batean, aurten era horretako egoera gehiago identifikatu direlako izan daiteke, bai eta egoera jakin batzuetan elkarritzeta indibidualak egiteko zailtasunak egon direlako ere. Aitzitik, handitu egin da ostatuetako erantzun-tasa.

**6. Taula. Erantzun-tasa (ET) kalean, bizitzeko egokiak ez diren beste lekuetan eta gaeuko harrera-zentro eta -zerbitzuetan (aterpetxeak) (2024)**


	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE
<b>Kalean eta bizitzeko egokiak ez diren beste lekuetan</b>				
Lokalizatutako pertsonak	122	910	524	<b>1.556</b>
Elkarritzeta proposatu zitzaien pertsonak	70	419	83	<b>572</b>
Egindako elkarritzetak	38	362	69	<b>469</b>
- Boluntarioek egindako elkarritzetak	0	146	53	199
- Profesionalek egindako elkarritzetak	38	216	16	270
Elkarritzeta proposatu ez zitzaien pertsonak	52	491	441	984
- Lo zegoen	13	250	109	372
- Ez dago egoera onean	11	11	17	39
- Hizkuntza-arrazoiak	13	28	51	92
- Beste arrazoi batzuk	15	202	264	481
Elkarritzeta proposatu zitzaien pertsonen artean (%)	%54,3	%86,4	%83,1	<b>%82,0</b>
Elkarritzeta proposatu zitzaien pertsonen artean (%)	%31,1	%39,8	%13,2	<b>%30,1</b>
<b>Gaeuko harrera-zentro eta -zerbitzuetan (aterpetxeak)</b>				
Lokalizatutako pertsonak	82	304	172	558
- Adinez nagusiak	82	302	171	555
Egindako elkarritzetak	78	220	97	395
ET (%) lokalizatutako pertsonen artean	%95,1	%72,4	%56,4	%70,8
ET (%) adinez nagusiko artean	%95,1	%72,8	%56,7	%71,2
<b>Guztira</b>				
Lokalizatutako pertsonak	204	1.214	696	2.114
- Adinez nagusiak	204	1.212	695	2.111
Egindako elkarritzetak	116	582	166	864
ET (%) lokalizatutako pertsonen artean	%56,9	%47,9	%23,9	%40,9
ET (%) adinez nagusiko artean	%56,9	%48,0	%23,9	%40,9

**7. Taula. Kaleko eta aterpetxeetako erantzun-tasaren (ET) bilakaera (2012-2024)**

	2012	2014	2016	2018	2020	2022	2024
<b>Kalean eta bizitzeko egokiak ez diren beste lekuetan</b>							
Lokalizatutako pertsonak	243	323	274	430	163	658	1.556
Egindako elkarritzetak	146	138	163	232	75	279	469
ET (%) lokalizatuen artean	%60,1	%42,7	%59,5	%54,0	%46,0	%42,4	%30,1
<b>Gaeuko harrera-zentro eta -zerbitzuetan (aterpetxeak)</b>							
Lokalizatutako pertsonak	396	390	440	497	1.197	519	558
Egindako elkarritzetak	326	264	248	303	1.113	351	395
ET (%) lokalizatuen artean	%82,3	%67,7	%56,4	%61,0	%93,0	%67,6	%70,8
<b>Guztira</b>							
Lokalizatutako pertsonak	639	713	714	927	1.360	1.177	2.114
Egindako elkarritzetak	472	402	411	535	1.188	630	864
ET (%) lokalizatuen artean	%73,9	%56,4	%57,6	%57,7	%87,4	%53,5	%40,9

Oharra: 2020an konfinamenduan zehar jarritako dispositibo berezietau ostetatutako pertsonak daude.

**3/ Bizitegi-bazterketa larriko egoeran dagoen pertsona kopurua, bilakaera eta ezaugarri nagusiak**



# Zenbat pertsona daude bizitegi-bazterketa larriko egoeran?

2024ko urrian egindako gaeuko zenbaketan, ikerketa honek **4.326 lagun aurkitu zituen bizitegi-bazterketa larriko egoeran** (ikus 8. taula).

✓ **1.556 pertsona aurkitu zituzten kalean edo bizitzeko egokiak ez diren lekuetan:**

- Horietatik guztiak %36 –**1.556 pertsona – kaleko gaeuko zenbaketak egin ziren 30 udalerriean aurkitu ziren**; zenbaketa horietan, kale-kalean ez ezik, bizitzeko desegokiak diren beste leku batzuetan ere identifikatu ziren pertsonak, hala nola abandonatutako eraikinetan, ibilgailuetan eta lokaletan.

✓ **2.770 pertsonan ostitua duten zentroetako batean eman zuten gaua:**

- Halaber, **%64 ondorengo zentro motetakoren batean zeuden**: %12,9 gaeuko harrera-zentro eta -zerbitzuetan; %7,4 indarkeria matxistaren biktima diren emakumeenzako zentro eta etxebizitzetan; %33,4 gizarteratze-baliabideren batean, eta gainerako %10,3a Estatuko asilo- eta babes-sarearen zentro espezifikoetan.
- Aurkitutako 4.326 pertsonetatik, **Araban aurkitu ziren 524 (%12,1), 2.282 Bizkaian (%52,8) eta 1.520 Gipuzkoan (%35,1)**.
- Kalean eta ostitua eskaintzen duten ikerketa honetan sartutako zentroetan zeuden pertsona kopuruen arteko proportzioa ere ezberdina da Lurralte Historikoaren arabera. **Aurreko edizioetan bezala, Araba da kalean aurkitutako pertsonen portzentaje txikiena duen lurraldea (%23,3)**; Gipuzkoan eta Bizkaian, berriz, proportzio hori %34,5ekoa eta %39,9koa da, hurrenez hurren.
- Lurralte bakoitzeko etxegabetasun-tasek erakusten dute, ohi bezala, Gipuzkoan zertxobait handiagoa dela bizitegi-bazterketa larriko egoeren intzidentzia**; mila biztanle bakoitzeko 2,103 lagun detektatu ziren Gipuzkoan, 1,984 Bizkaian, eta 1,593 Araban.

**8. Taula. Identifikatutako bizitegi-bazterketa larriko egoera ezberdinak kopurua, banaketa eta intzidentzia (2024)**

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE
<b>Pertsona kopurua</b>				
Kalea eta bizitzeko egokiak ez diren beste leku batzuk	122	910	524	<b>1.556</b>
Gaeuko harrera-zentroak eta -zerbitzuak	82	304	172	558
Indarkeria matxistaren biktimentzako zentroak eta pisuak	71	177	73	321
Gizarteratzeko zentroak eta pisuak	154	575	718	1.447
Asilo eskatzaileen zentroak (ebaluazio-fasea)	95	316	33	444
Guztira	524	2.282	1.520	<b>4.326</b>
<b>Banaketa bertikala (%)</b>				
Kalea eta bizitzeko egokiak ez diren beste leku batzuk	%23,3	%39,9	%34,5	%36,0
Gaeuko harrera-zentroak eta -zerbitzuak	%15,6	%13,3	%11,3	%12,9
Indarkeria matxistaren biktimentzako zentroak eta pisuak	%13,5	%7,8	%4,8	%7,4
Gizarteratzeko zentroak eta pisuak	%29,4	%25,2	%47,2	%33,4
Asilo eskatzaileen zentroak (ebaluazio-fasea)	%18,1	%13,8	%2,2	%10,3
Guztira	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0
<b>Banaketa horizontala (%)</b>				
Kalea eta bizitzeko egokiak ez diren beste leku batzuk	%7,8	%58,5	%33,7	%100,0
Gaeuko harrera-zentroak eta -zerbitzuak	%14,7	%54,5	%30,8	%100,0
Indarkeria matxistaren biktimentzako zentroak eta pisuak	%22,1	%55,1	%22,7	%100,0
Gizarteratzeko zentroak eta pisuak	%10,6	%39,7	%49,6	%100,0
Asilo eskatzaileen zentroak (ebaluazio-fasea)	%21,4	%71,2	%7,4	%100,0
Guztira	%12,1	%52,8	%35,1	%100,0
<b>Tasa* 1.000 biztanleko (%)</b>				
Kalea eta bizitzeko egokiak ez diren beste leku batzuk	0,452	1,096	1,190	1,010
Gaeuko harrera-zentroak eta -zerbitzuak	0,245	0,264	0,238	0,253
Indarkeria matxistaren biktimentzako zentroak eta pisuak	0,212	0,154	0,101	0,145
Gizarteratzeko zentroak eta pisuak	0,460	0,500	0,993	0,655
Asilo eskatzaileen zentroak (ebaluazio-fasea)	0,283	0,275	0,046	0,201
Guztira	1,563	1,984	2,103	1,959

Oharra: Kalean dauden pertsonen kasuan, gaeuko zenbaketa kalean egin den 30 udalerrietako biztanleria kontuan hartuta kalkulatu da. Gainerako kasuetan, hiru lurralte historikoetako bakoitzean bizi diren biztanleent datuetan oinarrituta kalkulatu dira tasak. Kalkulu horiek 2024ko urtarrilaren 1ean eguneratutako biztanleriaren eta etxebizitzen zentsuan oinarrituta egin dira.

## 9. Taula. EAEn egindako gaueko zenbaketan identifikatutako bizitegi-bazterketa larriko egoeran dauden pertsona kopuruaren bilakaera (2012-2024)

		Hiriburuak							Lurraldearen gainerakoa							Guztira						
		2012	2014	2016	2018	2020	2022	2024	2012	2014	2016	2018	2020	2022	2024	2012	2014	2016	2018	2020	2022	2024
Araba	Kalea	29	17	30	21	16	42	107	--	3	0	2	3	0	15	29	20	30	23	19	42	122
	Gaueko harrera-zentro eta -zerbitzuak	95	70	86	94	73	73	82	0	0	0	0	0	0	0	95	70	86	94	73	73	82
	COVID-19 baliabide bereziak	--	--	--	--	69	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	69	--	--
	Azpitotala	124	87	116	115	158	115	189	0	3	0	2	3	0	15	124	90	116	117	161	115	204
	Indarkeria matxistaren baliabideak	27	27	27	45	34	60	69	0	0	4	0	7	0	2	27	27	31	45	41	60	71
	Beste baliabideak	157	180	157	155	165	180	247	0	0	5	8	5	4	2	157	180	162	163	170	184	249
	Guztira	308	294	300	315	357	355	505	0	3	9	10	15	4	19	308	297	309	325	372	359	524
Bizkaia	Kalea	148	141	112	214	68	247	605	--	34	43	53	27	93	305	148	175	155	267	95	340	910
	Gaueko harrera-zentro eta -zerbitzuak	187	187	186	199	150	228	247	0	0	13	32	22	44	57	187	187	199	231	172	272	304
	COVID-19 baliabide bereziak	--	--	--	--	476	--	--	--	--	--	--	67	--	--	--	--	--	--	543	--	--
	Azpitotala	335	328	298	413	694	475	852	0	34	56	85	116	137	362	335	362	354	498	810	612	1.214
	Indarkeria matxistaren baliabideak	23	11	44	53	64	70	150	0	12	5	9	6	27	27	23	23	49	62	70	97	177
	Beste baliabideak	405	397	459	440	432	793	645	123	122	104	98	156	167	246	528	519	563	538	588	960	891
	Guztira	763	736	801	906	1.190	1.338	1.647	123	168	165	192	278	331	635	886	904	966	1.098	1.468	1.669	2.282
Gipuzkoa	Kalea	66	89	48	101	79	218	413	--	39	41	39	20	58	111	66	128	89	140	49	276	524
	Gaueko harrera-zentro eta -zerbitzuak	82	122	132	142	72	108	112	32	11	23	30	34	66	60	114	133	155	172	106	174	172
	COVID-19 baliabide bereziak	--	--	--	--	128	--	--	--	--	--	--	106	--	--	--	--	--	234	--	--	
	Azpitotala	148	211	180	243	279	326	525	32	50	64	69	160	124	171	180	261	244	312	389	450	696
	Indarkeria matxistaren baliabideak	12	10	11	19	48	20	39	0	5	10	14	9	35	34	12	15	21	33	57	55	73
	Beste baliabideak	163	218	262	270	261	304	330	155	141	207	282	250	543	421	318	359	469	552	511	847	751
	Guztira	323	439	453	532	538	650	894	187	196	281	365	419	702	626	510	635	734	897	957	1.352	1.520
Guztira	Kalea	243	247	190	336	113	507	1.125	--	76	84	94	50	151	431	243	323	274	430	163	658	1.556
	Gaueko harrera-zentro eta -zerbitzuak	364	379	404	435	295	409	441	32	11	36	62	56	110	117	396	390	440	497	351	519	558
	COVID-19 baliabide bereziak	--	--	--	--	673	--	--	--	--	--	--	173	--	--	--	--	--	846	--	--	
	Azpitotala	607	626	594	771	1.081	916	1.566	32	87	120	156	279	261	548	639	713	714	927	1.360	1.177	2.114
	Indarkeria matxistaren baliabideak	62	48	82	117	146	150	258	0	17	19	23	22	62	63	62	65	101	140	168	212	321
